

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

11879 *Hutsen zuzenketa, honako honena: 9/2015 Legea, maiatzaren 25ekoa, Konkurtso-arloko Presako Neurriena.*

Hutsa atzeman da Konkurtso-arloko Presako Neurrien maiatzaren 25eko 9/2015 Legean, zeina *Estatuko Aldizkari Ofizialaren* 2015eko maiatzaren 26ko alean (125. zk.) argitaratu baitzen; beraz, zuzenketa hau egiten da:

32. orrialdean, azken xedapenetatik seigarrenaren Bat zenbakian, hau dioen lekuan: «Bat. Proposatzen da bi lerrokada berri gehitzea Itsas Nabigazioari buruzko uztailaren 24ko 14/2014 Legearen 69. artikulua 3. zenbakian. Honela dio:»; hau esan behar du: «Bat. Bi lerrokada berri gehitzen dira Itsas Nabigazioari buruzko uztailaren 24ko 14/2014 Legearen 69. artikulua 3. zenbakian. Hona hemen:».